

Gramatiken auzi batzuk¹

Cuestiones a cerca de las gramáticas

Questions sur les grammaires

Some grammar issues

AZKARATE, Miren

Euskaltzaindia eta Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
mirenkarmele.azkarate@ehu.eus

Noiz jaso: 2021-02-25

Noiz onartua: 2021-04-30

¹ Egileak ikerketarako jaso duen finantziazioa eskertu nahi du: Jaurlaritza- IT1169-19 (2019-2021).

XXI. mendeko gramatikek dituzten ezaugarrietako batzuk nabarmentzea du helburu artikuluko honek. Zehazki, *Euskararen Gramatikak* nola baliatu dituen hizkuntzalaritzaren azken berrogeita hamar urte hauetako ekarpenak euskararen egituren berri ematean: deklinabidea eta kasu-atzizkiak bereiztea; ‘argumentu-egiturak’ eta ‘paper tematikoeak’ aditzen sailkapenean eta eratorpenean duten eragina; edo sintaxi-egitura eta informazio-egitura banatzea, besteak beste. Izan ere, XVI. edo XVII. mendetik hona asko aldatu da hizkuntzen sistema morfoloģiko edo sintaktikoa deskribatzeko modua, gramatikariek garai bakoitzean eskura izan dituzten kontzeptu eta formalizazioen arabera.

Gako-hitzak: hizkuntzalaritza, euskal gramatikak, euskal aditza, eratorpena, kasu atzizkiak.

Este artículo pretende resaltar algunas de las características de las gramáticas del siglo XXI. En concreto, cómo la *Gramática del Euskera* ha aprovechado las aportaciones de la lingüística en los últimos cincuenta años para dar a conocer las estructuras del euskera: distinguir la declinación y los sufijos de caso; determinar la influencia de las ‘estructuras argumentales’ y ‘papeles temáticos’ en la clasificación de los verbos y en la derivación; o diferenciar la estructura sintáctica de la estructura informativa, entre otros. De hecho, la forma de describir el sistema morfológico y sintáctico de las lenguas ha variado sustancialmente desde los siglos XVI-XVII, en función de los conceptos y formalizaciones que los gramáticos han tenido en cada época.

Palabras clave: lingüística, gramáticas del euskera, el verbo vasco, la derivación, los sufijos de caso.

Cet article met en évidence certaines des caractéristiques des grammaires du XXI^e siècle et plus concrètement, il montre comment la *Grammaire Basque* a profité des apports de la linguistique au cours des cinquante dernières années pour faire connaître la structure de la langue basque : distinguer la déclinaison et les suffixes de cas ; déterminer l'influence des ‘structures argumentaires’ et des ‘rôles thématiques’ dans la classification et dans la dérivation des verbes ; ou encore différencier la structure syntaxique de la structure informative, entre autres. En fait, la façon de décrire le système morphologique et syntaxique des langues a considérablement changé depuis les XVI^e-XVII^e siècles, en fonction des concepts et formalisations que les grammairiens ont élaboré à chaque époque.

Mots-clés : linguistique, grammaires basques, le verbe basque, la dérivation, les suffixes de cas.

The aim of this article is to highlight some of the features of 21st century grammars. Specifically, how *Basque Grammar* has benefited from the contributions of the last fifty years of linguistics with regard to the structures of the Basque language: distinguishing declension

and case suffixes; the influence of ‘argument structures’ and ‘thematic papers’ on verb classification and derivation; distinguishing between syntactic structure and information structure, among other things. In fact, the way in which morphological and syntactic language system descriptions have changed greatly since the sixteenth and seventeenth centuries depending on the concepts and formalizations available to grammarians during each period.

Keywords: linguistics, Basque grammars, Basque verb, derivation, case suffixes.

0. Sarrera

Euskaltzaindiaren mendeurreneko ospakizunen harira antolatu zen Gramatika jardunaldian emandako hitzaldia du oinarri artikulua honek. Han esandakoek eta han entzundakoek, lan honekin batera argitaratuko direnek, lagundu didate jardunaldi hartako hitzaldia osatzen.

Gramatiken auzi batzuk zuen izenburu nire hitzaldiak. Esan beharrik ez dago gramatikek auzi asko eta mota askotakoak dituztela; ez dagoela astirik ez hitzaldi batean, ez eta luzexegoa izan daitekeen artikulua batean ere guztiak jasotzeko. Baina interesgarria iruditu zait nabarmentzea nola azaldu diren zenbait gramatika auzi XVII. mendetik gaur arteko gramatiketan, eta argitaratzeaz dagoen *Euskararen Gramatika*n. Saio horretarako, *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* ematen duen ‘gramatika’ terminoaren definizioa hartuko dut abiapuntu. Bi adiera eman dizkio Euskaltzaindiak. Lehena: ‘Lehen, hizkuntza bat zuzen hitz egin eta idazteko arauen multzoa’. Beraz, ikuspegi guztiz normatiboa duena. Halakoak izan dira gehienetan Akademiaren gramatikak. Zerbait esango dut aurrerago ikuspegi preskriptibo edo arauemaile honetaz. Bigarren adiera: ‘Gaur egun, hizkuntza jakin baten osagaien (hotsen, formen, joskeren) azterketa eta azalpena’. Horrek ez du esan nahi gaur egun, batez ere hizkuntza gutxituen kasuan, edo estandarizazio prozesua guztiz amaitu gabe dutenetan, arauak emateko presiorik ez dagoenik. Eta, batez ere, Euskaltzaindia, Akademia bat baldin bada gramatika bat argitaratzen duena, hor azaltzen dena preskripzio edo arau moduan ulertuko ez denik. Ignacio Bosque eta Gemma Rigauk ere horixe aipatu zuten Jardunaldian emandako hitzaldian. Baina gaur, gramatikek batez ere hizkuntza baten osagaiak aztertu eta azaltzea izan ohi dute helburu eta eginkizun.

Kontua da, ordea, garaian garaiko moldeak, kontzeptuak, izaten dituztela eskura gramatikariek eta horien arabera deskribatu eta azaltzen dituztela hizkuntzen ezaugarriak. Euskararen kasuan, bat etorriko gara ez dugula aldatuta nabarmenik ikusten Axularren XVII. mendeko euskararen eta gaurko estandarren artean, edo gaurko nafar-lapurteraren artean. Baina asko aldatu dira hizkuntzak deskribatzeko gramatikariek eskura izan dituzten moldeak eta kategoriak. Begiratu azkar bat emango diegu XVII. mendetik

honako gramatikei ohartzeko garaian garaiko gramatiken ezaugarriak dituztela euskarazkoek ere.

1. XVII.–XX. mendeetako euskal gramatikak

XVII. eta XVIII. mendeetako gramatikariek, –Oihenart, Micoleta, Urte, Pouvreau, Etxeberri Sarakoa edo Larramendik–, gramatika grekoen eta latinekoen eredu baina ez zuten. Eta eredu horri atxiki zitzaizkion, mende haietan idatzi ziren gramatika gehienak bezala (Gómez 2006, 2008; Oyharçabal 1989, 1993). Grekoa edo latina deskribatzeko pentsatu zituzten erregelek, jakina, arazo ugari sortzen zuten euskara bezalako hizkuntza bat deskribatzeko, baina hori zen eskura zuten metodologia. Larramendik aitortu du euskara asko aldentzen dela beste hizkuntza batzuetatik, baina, aldi berean erakutsi nahi du euskara “sartzen dela” beste hizkuntza batzuetako kategorietan (Gómez 1991).

Hala ere, mendekotasun orokor horretatik guztiz libratzerik lortu ez arren, nabarmentzekoa da Oihenarten intuizioa eta modernotasuna (Gómez 1991, 2006, 2008; Oyharçabal 1989, 1993) gai izan baitzen indarrean zegoen eredu klasikoa gainditu eta euskararen deskribapen beregain eta egokiagoa egiteko bost puntutan, behintzat: a) *–a* eta *–ak* singularreko eta pluraleko artikulutzat hartu zituen (ez nominatiboaren atzizkitzat garai hartan, eta geroago ere, egiten zen bezala); b) artikuludun deklinabidea eta artikulugabea bereizi zituen (gaurko *mugagabea* eta *mugatua*) eta artikuluduna, singularra edo plurala izan daitekeela ere zehaztu zuen; c) latinaren kasu kopuru berbera mantendu arren (alegia, sei kasu), ez ditu aintzat hartzen bokatiboa eta akusatiboa (nominatiboaren bidez adierazten direlako euskaraz), eta beste bi kasu gehitzen ditu “*casus negandi seu dubitandi* ezeztatzekoa edo zalantzazkoa, [-(*r*)ic] eta *casus agendi* edo *activus* [-(*e*)c]” (Gómez 1991), hau da, gaurko partitiboa eta ergatiboa; d) adizki trinkoak edo sintetikoak hartu zituen euskararen berezko aditz gisa; e) lau aditz laguntzaile bereizi zituen, gaur egiten den bezala (Oyharçabal 1998: 445). Oihenarten deskribapen egoki horiek (mugagabearenak, esaterako, edo lau aditz laguntzaile bereizteak) ez zuten oihartzunik izan XIX. mendera arte; eta orduan ere, Humboldt izan zen Oihenarten proposamenen bidetik jo

zuen bakarretakoa. Horrek erakusten du gramatikari jakin baten intuizioek ez dutela askotan nahikoa indar izaten garaiko sailkapenak gainditzeko.

XIX. mendeari mende “frantsesa” deitzen dio Gómezek (2006) nabarmena delako euskal gramatikagintzan Frantziako gramatika orokor eta filosofikoaren eragina (Port Royalgo autoreek Gramatikan eta Logikan garatu zituzten analisisen eragina). Gómezek dioen bezala, Astarloaren, Humboldt-en edo Darrigolen lanak behar bezala kokatzeko, nahitaezkoa da Europan XVIII. mendeko hizkuntzalaritzako gaiak kontuan hartzea, hala nola *gramatika orokorra* eta *gramatika unibertsala*, hizkuntzaren jatorriari buruzko eztabaidak edo munduko hizkuntzen datu-bildumak. Astarloaren apologista lana, esaterako, ezin uler daiteke kontuan hartzen ez bada lehen hizkuntzaren ezaugarriak eman nahi zituela eta ezaugarri horiek guztiak betetzen zituen hizkuntza bakarra euskara zela demostratu. Hala ere, bide horretan, “euskal gramatikaren deskribapen aski zehatza eskaini zigun. (...) Ekarpene nagusia, nik uste, euskal hitzen morfema-zatiketa dugu. Lehen hizkuntzaren perfekzioa frogatzeko aintzat hartu zituen egokitasuna eta ekonomia hatsarreak aplikatuz, euskal izen eta aditz morfologiaren hainbat flexio-hizki identifikatu zituen eta —zenbaitetan agerian, bestetan ezkerretan— paradigma batzuk bikain egituratu zituen ” (Gómez 2006: 61). Astarloak nahikoa ondo identifikatu zituen pertsona, denbora, modu eta abarren markak; argumentu motaren arabera komunztadura hizki desberdinak daudela ohar-tarazi zuen; komunztaduran datibo-ergatibo hurrenkeraz ere ohar-tu zen. “Laburbilduz, Astarloaren lanak euskararen komunztadura-hizkien tradiziozko analisiaren oinarritzeko gai nagusiak agertu zituen; bide batez, ondoko autore batzuen lanetan baino askoz landuago agertu ere” (Gómez 2006: 309). Bat dator iritzi horretan Oyharçabal (1998: 443): “euskal aditz jokaduraren (...) egituraren azterketa borobilen Astarloak egin zuen”.

Humboldt-en ekarpena, berriz, “Europako hizkuntzalaritzan sortzen edo garatzen ari ziren metodoak euskararen azterketari aplikatzea izan zen” (Gómez 2006: 51). Horren ondorioz, azpimarratu zuen euskaraz izena eta adjektiboa bereizteko zailtasuna, “ez bada izen sintagman batak eta besteak hartzen duten egongune erlatiboagatik” (Gómez 2006: 57). Oihenarteren ekarpena berreskuratu zuen deklinabide mugatua eta mugagabea bereiztean. Kasuen eta postposizioen arteko aldea nabarmendu zuen: kasuek

lehen mailako erlazioak adierazten zituzten, eta postposizioek, ostera, bigarren mailako erlazioak. Kasuei dagokienez, hiru kasu bereizi zituen: nominatiboa, genitiboa eta datiboa. Baina, euskararen kasuan, bi nominatibo mota daude: bata egileari dagokiona (Oihenartek ere bereizi zuen *-(e)c*) eta bestea, pasibo edo neutroari dagokiona. Hor daude, garaiko terminologia baliatuz, *Euskararen Gramatikan* bereizi ditugun ‘egiturazko kasuak’. Bestelako xehetasun batzuk ere aurki ditzakegu Humboldt lanetan: partitiboaren atzikia, *-(r)ik* eta ablatiboaren *-tik* ere lotzen ditu, bai eta leku kasuetako pluraletan ageri den *-eta-* eta toponimian ageri den *-eta* (*Pagoeta*, *Arantzeta*...). Azken honi loturik, nabarmentzekoa da hitz eraketari, eta, bereziki, eratorpenari, eskaintzen dion arreta eta lekua.

Darrigolek (1827)² ere euskara gramatika orokor eta filosofikoaren ereduari atxikita aztertu zuen eta, “euskal gramatika-tradizioan aurki daitekeen Frantziako arrazionalismoaren eta entziklopedismoaren eraginik garbientakoa” (Gómez 2006: 109) izan arren, ekarpen aipagarriak egin zizkion euskararen gramatikari. Kasuek eta postposizioek zeregin bera betetzen zutela ikusirik, irizpide morfologikoa lehenetsi eta kasuen zerrenda luzatu egin zuen. Gorago aipatu dugun munduko hizkuntzen datu bildumari esker, jakina zen kitxuak edo laponierak latinaren eredu gainditzen zuten kasu kopurua zutela. Bide horretatik jo zuen, Beauzéeren lana oinarri hartuta (hala aitortu du berak) eta atzizki bakoitzari kasu bat egokitu zion (Gómez 2006: 95). Mugatua eta mugagabea bereiziaz,³ izen bizigabeen, bizidunen, eta izen berezien paradigmak eskaini ditu, eta kasuen deiturei buruzko hausnarketa ere egin du. Gainera, euskaraz akusatiborik ez dagoela ere baieztatu zuen. Aditzean, garai hartako azterbideari jarraikiz, hizketaunearekin lotzen dituen aldaketak (*aurrekoa*, *aldiberekoa* eta *ondokoa*) gaurko

² Darrigol, J. P. (1827). *Dissertation critique et apologetique sur la langue basque, par un ecclésiastique du diocèse de Bayonne*. Baiona: Duhart-Fauvet. [Berrargitalpena. faksimilea Toulouse: Eché, 1979.] <http://oaiprod1.gipuzkoa.eus:8080/handle/10690/103449?locale=fr>

³ Harrigarria ere bada nola zehazten duen noiz erabili behar den mugagabea adibideak emanaz: *cembait giçon handi, cembait giçon handic, cein giçon handiz çare mintzo, cembait hiri handitan dago...* (Darrigol 1827: 70). Izan ere, dio Darrigolek, gure belarria ez dagoela ohitua mugagabeko forma horiek bakarrik, isolaturik, entzuten. Adibideek argi utzi dute zenbatzaile sintagma dela kasu marka hartzen duena. Baina, jakina, Darrigolek ezin zituen termino horiek erabili.

aspektu sistemari dagozkio (hurrenez hurren, burutua, burutugabea eta etorkizuna).

XIX. mendearen erdialdetik aurrera, gramatika historiko-konparatzailea nagusitu zen Europan. Eta “hizkuntzalaritza berriaren ekarpenekin, hizkuntzaren sailkapen tipologikoarekin batik bat, erabat aldatu zen euskararen eta beste hizkuntza batzuen arteko erkaketa-saioen ikuspegia” (Gómez 2006: 145). Izan ere, hizkuntza *isolatzaileak*, *eranskari* edo *aglutinatzaileak* eta *malgukari* edo *flexiboak* bereiztean, argi geratu zen euskara bigarren motakoa zela. Testuinguru horretan, Van Eysek, esaterako, sendo defendatu zuen euskaraz ez dagoela deklinabiderik (3. puntuan itzuliko naiz auzi honetara). Eta, oro har, Gómezek (2006: 204) dioenez, argi adierazi zuen *Essai de grammaire de la langue basque* lanaren bigarren edizioan zein zen bere helburua: “hizkuntzalaritza *modernoaren* [letra etzana nirea da] eskakizunei erantzuteko gai den euskararen deskribapen bat eskaintzea”.

Hortik aurrera, euskal gramatikagintza egundoko gorakada izan zuen, gramatika deskriptibo asko egin ziren. Baina, hurrengo puntuetan aipatuko ditudan Azkueren eta Lafitteren lanak albo batera utzita, hurrengo jauzi nagusia Patxi Goenagaren *Gramatika Bideetan* lanak ekarri zuen. Hizkuntzalaritzan nagusitzen ari zen Chomskyren ikuspegi generatibista euskarari aplikatzeko saioa izan zen. Ordura arte hitzak (kategoriak) eta atzizkiak (deklinabidekoak, adizkietakoak...) aztertzen ziren. Adierazgarria da Azkuek *Morfologiaren* sarreran dioena: *Afijos vascos* du izena lehen parteak, eta lehen parte hori amaitzen ari zela “ví que la obra quedaría manca si no se le añadía un Tratado, siquiera breve, de Categorías gramaticales o partes de la Oración (...). Y con esto, lo que iba a ser Tratado de afijos vascos nace como obra de Morfología”. Lafittek ere berrogeita hamarren bat orrialde eskaintzen dizkio sintaxiari, eta horietatik 20 inguru bakarrik perpausei. Generatibismoak, besteak beste, perpausetik abiatzea ekarri zuen, baina ez naiz hasiko generatibismoaren proposamenaren edukia aztertzen. Aipamen bat ekarri nahi dut hona, puntu honetan esandakoa indartzeko, alegia, garaian garaiko metodologiaz, deskribamoldeez baliatuz kontatzen direla hizkuntzen gertakariak. Hauxe dio Ibon Sarasolak *Gramatika Bideetan* liburuaren hitzaurrean: “Hizkuntzalaritzaren teoria orokorrean eta bereziki gramatika teoriaren arloan funtsezko aldaketak gertatu dira azken

hamarkada hauetan, batez ere gramatika sortzaile eta transformatzaileen eskutik. Eta jardun honek prestatu duen analisi tresneria aurrekoa baino askoz ere zehatz eta zorrotzagoaz ezinbestean baliatu behar dugu. (...) Horretara dator, eta ez bestetara, Patxi Goenagaren liburu hau. Orain arte gure hizkuntzari buruz dakiguna egungo gramatika teoriaren arabera berriinterpretatzera eta sailkatzera” (1980: 5-6). Hitz horiek Van Eysek (1879: vii) *Grammaire comparée des dialectes basques* lanaren hitzaurrean idatziak dakarzkigute gogora: *Essai de grammaire de la langue basquen* bigarren argitaralditik hamar urte igaro ondoren “un grand nombre de faits, passés inaperçus jusqu’à présent, sont venus éclairer d’un nouveau jour les questions d’analyse grammaticale”. Aurkikuntza horiek ematen duten argia baliatu nahi du euskalkien gramatika egitean.⁴

2. XXI. mendeko gramatiken ezaugarriak

Gaurko gramatikek, Euskaltzaindiaren definizioak ondo adierazten duen bezala, deskribatu egiten dute, batik bat. Gramatika Jardunaldian aurkeztu diren gramatikek, –lau Akademiek mende honetan landu dituzten edo lan-tzen ari direnek–, hainbat ezaugarri partekatzen dituzte. Ignacio Bosquek eta Gemma Rigauk nabarmendu duten bezala:

- a) taldelanaren fruitu dira. Ez dira egile bakarrarenak, baina ezta hainbat egileren kapituluaren bilduma huts ere. Talde batek adostutako lanak dira;
- b) deskribatzaile izate horretan, aldakortasun geografiko eta sozialari arreta jartzen diote;
- c) ez dira gramatika teorikoak, baina kontuan hartzen dituzte azken urteetan egindako ikerketa teorikoak; izan ere, gramatika modernoak

⁴ Interesa duenak, Gómezen (2006, 2008) edo Oyharçabalen (1989, 1993, 1998) lanetan, eta ematen duten bibliografia ugarian aurkituko du informazio gehiago XVII.–XIX. mendeetako gramatikagintzaz. Bereziki argigarriak dira Gómezen (2006) 6., 7. eta 8. kapituluak, euskal gramatikaren hiru auzi –artikulua eta “artikulua”, aditz bakarraren teoria, eta objektu komuntzadura nola aztertu diren azaltzen duelako–.

egungo ikerketen sintesi izan ohi dira. Tradizioaren eta modernitatearen arteko oreka bilatzen dute;

- d) horrek berarekin dakar gramatika tradizionalan ageri ez ziren kontzeptuak azaltzea, baina betiere gramatikari garaikideen artean guztiz hedatuak daudenak.

Euskararen Gramatikak ere ezaugarri horiek guztiak ditu. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* bildumako lehen liburukiek, orain dela hogeita hamar urte baino gehiago idatziek, ez zuten aukerarik izan ez hizkuntzalaritza teorikoaren eta ez euskal hizkuntzalaritzaren ekarpen nagusiak jasotzeko. Bide horretatik nabarmendu nahi ditut hainbat gai, jakinik azken urteotan osatu dugun gramatikaren erakusgarri bat baino ez direla.

3. Deklinabidea ala kasuak?

Lan honen lehen puntuan ikusi bezala, latinaren gramatiken mendeko deskribapen eta analisiak gorabehera, euskal gramatikari batzuek lortu zuten mugatua / mugagabea bereizketa egitea, eta euskal kasu eta postposizioen ezaugarri nagusien berri ematea. XIX. mendean nagusitu ziren korronteez ere lagundu zuten horretan. Areago, Van Eysen (1867), hizkuntza eranskari den heinean, euskaraz ez duela deklinabiderik aldarrikatu zuen, baina gero ‘deklinabide’ erabiltzen jarraitu zuen. 1879an, ordea, behin eta berriro nabarmenduko du euskaraz ez duela deklinabiderik (1879: vii, 470, 471). Hala ere, Azkuek (1923-25) edo Lafittek (1944) deklinabideaz hitz egiten dute.⁵ Euskaltzaindiak ere deklinabidearen paradigmak eman ditu eta termino hori behin baino gehiagotan agertzen da arauetan. Hizkuntza eranskari izateak, ordea, egiazko deklinabiderik ez izatea dakar, baizik sintagma osoari (mugatu (singular edo plural) / mugagabe izango denari) eransten zaizkion atzizkiak. Ikuspegi hori dakarte Goenagak (1980) eta EGLU-I liburukiak (1. puntuan aipatu dugu Darrigolen intuizioa ere, 3. oin-oharrean). Gaur, ordea, formalizazio konplexuagoa darabilte gramatikariek: determinatzaile sintagma, zenba-

⁵ Areago, Azkuek (1923-25: § 483) ezaguna zuen Van Eysen euskaraz deklinabiderik ez dagoelako ideia, baina, holandarrari kontra eginez, euskal deklinabidea defendatzen jarraitu zuen.

tzaile sintagma, kasu sintagma, postposizio sintagma... Determinatzailea, zenbatzailea, edo postposizioa buru duten sintagmak.

Kasu-sistemari dagokionez, nominatibo / akusatibo bereizketak asko baldintzatu zuen euskararen deskribapena. Hala ere, besteak beste, Oihenart (*casus agendi*), Van Eys (1879) eta Laffite (1944), nahiz Azkue (1923-25: § 455, 'kasu aktiboa') gai izan ziren euskararentzat termino egokiagoa proposatzeko. Baina, 1970eko hamarkadara arte ez ginen hasi XX. mendean orokortu ziren 'absolutibo' / 'ergatibo' terminoak erabiltzen. Van Eysek (1867, 1879), bestalde, nabarmendu zuen (aditz intrantsitiboan) subjektuak eta (aditz trantsitiboan) objektuak forma berbera dutela, eta subjektu agentearen ezaugarria dela *-k* atzikia. Gómezek (2006) dioten bezala, antzeman zuen euskararen morfologia ergatiboa.

4. Aditzen sailkapena

Bakoitzaren bere garaiko sailkapenak izan zituzten eskura euskal gramatikariek aditza aztertzen ari zirela. Larramendik (1729),⁶ esaterako, aditz aktiboak (*jaten dut* 'conjugación absoluta' eta *jaten dit* 'conjugación relativa' edo 'transitiva'), pasiboak, eta neutroak (*etorri naiz* eta *etorri zatzaizkiz* 'conjugación transitiva del neutro') bereizi zituen. Micoletak (1653: 7) ere bereizkuntza horri jarraitu dio, baina *egin* aditzaren jokoaz aztertzean, *lo egin*, *hotz egin* modukoak aipatzen ditu 'neutroen' artean, laguntzaileari begiraturata aktiboak izango liratekeen arren.⁷ XIX. mendean, aditz *intrantsitibo* eta *trantsitibo* bereizketa aurkituko dugu (Darrigol, Van Eys...) eta 'erregimen bikoitzeko aditz joko trantsitiboa' (Darrigol, 1827: 118, 130), baina 'aditz aktibo' ere badarabil. XX. mendean Azkuek aditz trantsitibo / intrantsitibo bereizketa nagusiaren ondoan, hartzaileari dagozkion formak bereizten ditu bakoitzean ('verbos intransitivos de flexiones de recipiente' eta 'verbos transitivos de flexiones de recipiente'). Lafittek (1944: 188-189) trantsitibo eta

⁶ Larramendi, Manuel (1729). *El Impossible Vencido. Arte de la lengua bascongada*. [Edizio faksimilea. Donostia: Hordago, 1979].

⁷ Micoleta, Rafael (1653). *Modo breve de aprender la lengua vizcayna* [Second édition 1897 http://www.liburuklik.euskadi.eus//applet/libros/JPG/diputacion/FSS_020266/FSS_020266.pdf]

intransitiboetako hirugarren sail bat gehitzen die, ‘deponenteak’, hau da, formalki transitiboak izan arren, balio intransitiboa dutenak, hala nola: *irakin, iraut, afaldu, bazkaldu, distiratu, kurritu...* Azkuek ‘verbo defectivo’ deiturapean sartzen ditu horietako gehienak.

Euskaraz idatzitako gramatiketan, batetik, *iragankor* eta *iragangaitz* terminoak erabili dira *transitibo* eta *intransitiboren* ordez. Bestetik, izan da joera aditz laguntzailearen araberrako sailkapena egiteko. *Nor / nor – nor* oinarritzko sailkapena osatu egin zen EGLU II-n (1987b) datiboa, *nori* sintagma, gehitu zitekeen, eta, sintagma hori hautazkoa edo beharrezkoa zen kontuan hartuta EGLU-II-n (1987b: 59); eta *nor-nork* sailekoen artean ‘*nor* izuna’ dutenak bereizi ziren, hau da, egiazko *nor* sintagmarik ez dutenak (1987b: 48-49). Irizpide bereko sailkapena aurkituko dugu Goenagarengan ere (1980: 171). EGLU-II-n (1987), baina, sail aldaketak aztertzean, berariaz aipatzen dira ‘inkoatibo-arazle’ oposizioa eratzen dutenak (*zikindu da / zikindu du*).

Gaurko sailkapen batek, homologagarria izan nahi badu, nahitaez hartu behar ditu kontuan hizkuntzalaritzan 1980ko hamarkadatik hona hedatu diren *ex-akusatibo* eta *ex-ergatibo* terminoen bidez aditz intransitiboetan egiten diren bereizketak. Hizkuntzalaritza teorikoak eman dizkigu baliabideak Micoletaren *lo egin* motak aditz neutroak, edo Laffiteren deponenteak nahiz EGLU-IIko *nor* izuna dutenak xehekiago aztertzeko. Horregatik proposatu dugu euskararako honako sailkapen hau: aditz intransitiboak (*etorri naiz*), aditz intransitibo datibodunak (*etorri zait, iruditu zait*), aditz intransitibo ergatibodunak (*eskiatu dut*), aditz intransitibo ergatibodun eta datibodunak (*lanari ekin dio*), aditz transitiboak (*irakurri dut*) eta aditz ditransitiboak (*eskaini diot*). Aditz intransitibo ergatibodunetan ere egiten dira bereizketak: goraxeago aipatu dugun *ex-akusatibo* (*iraut du, irakin du*) / *ex-ergatibo* (*eskiatu du, dimititu du, lan egin du*). Baina bereizketa hori ulertzeko hurrengo puntuan aipatuko ditudan argumentuak eta paper tematikoak behar ditugu.

5. Argumentuak eta paper tematikoak

Aditz jakin batek adierazten duen gertaerak, ekintzak, jarduerak... hainbat parte-hartzaile eskatzen ditu. *Egon* aditzak, esaterako, parte-hartzaile

bakarra eskatzen du. *Etorri* edo *joan* ekintzek bat, edo bi ('iturria', nondik etorri, edo 'helburua' nora joan). *Eman* aditzak ohikoa du hiru parte-hartzaile izatea, eta abar. Parte-hartzaile horiei esaten zaie 'argumentu'. Argumentu horiek, aldi berean, 'paper tematikoak' hartzen dituzte: egilea, gaia / jasailea, hartzailea, iturria, helburua, kokapena... Eta paper tematiko jakina duten argumentu horiek sintagmen bidez islatzen ditugu sintaxian, kasu edo postposizio jakin bat hartuko duen sintagma baten bidez. Agentea, gehienetan, sintagma ergatiboen bidez adierazten dugu. 'Gaia', aditz psikologikoen kasuan estimulua ere izan daitekeena, absolutibo sintagma baten bidez adieraz daiteke, baina baita postposizio sintagma baten edo ergatibo sintagma baten bidez ere. (1a) adibidean, *Aitzolek* sintagmak agentea adierazten du; (1b) adibidean ere bai *zuk* sintagmak.

(1a) *Aitzolek liburua irakurri du*

(1b) *oso ondo eskiatzen duzu zuk*

Baina bi perpaus horietan kasu batean bi argumentu daude, bestean argumentu bakarra.

(2a) *Jon berandu etorri da*

(2b) *liburua irakurri dut*

(2a) perpausean *Jon* pazientea da (edo 'gaia') eta absolutibo sintagmaren bidez emana dago. (2b)n ere *liburua* sintagma absolutiboak adierazten du aditzaren 'paziente' edo 'gaia' argumentua. Baina sintagma absolutibo horrek batean subjektu funtzioa betetzen du; bestean, objektu zuzenaren funtzioa, (2b)ko aditzak bi argumentuko egitura duelako.

(3a) *poztu naiz zure etorreraz*

(3b) *bidaiatzea gustatzen zait*

(3c) *bidaiatzea gogoko dut*

(3a), (3b) eta (3c) adibideetan aditz 'psikologikoak' (norberaren sentimenduak, gogo-egoerak... adierazten dituztenak) ditugu, bi argumentu izaten dituztenak: batek 'esperimentatzailea' paper tematikoa hartzen du, eta besteak 'gaia', 'estimulu' ere deitu zaiona halako aditzetan. Baina argumentu horiek modu batean baino gehiagotan isla daitezke sintaxian. (3a)n

sintagma absolutiboa dagokio esperimentatzaileari, eta postposizio sintagmak adierazten du gaia edo estimulua. (3b)n, ostera, datibo sintagma da ‘esperimentatzailea’ paper tematikoa duen argumentua islatzen duena; eta sintagma absolutiboa, ‘gaia’ edo estimulua adierazten duena. Azkenik, (3c)n esperimentatzaile–sintagma ergatibo / gaia–sintagma absolutiboa dugu.

(4a) *urak irakin du*

(4b) *oso ondo eskiatzen duzu*

(4a) eta (4b) adibideei dagokienez, goraxeago (4. puntuaren amaieran) esan dugu bi aditzak direla intransitibo ergatibodunak; izan ere, argumentu bakarra dute, sintagma ergatiboaren bidez islatzen dena. Aldea, argumentu bakar horren paper tematikoan dago: *irakin* aditzaren argumentuak ‘gaia’ paper tematikoa hartzen du; *eskiatuk*, berriz, ‘agentea’ (horregatik hedatu da lehen motakoentzat *ex-akusatibo* terminoa, eta *ex-ergatibo* ‘agentea’ dutenentzat, nahiz euskaraz guztiz intuizioaren kontrako deitura izan).

(5a) *hil da, bigundu da, hautsi da, haserretu da...*

(5b) *hil du, bigundu du, hautsi du, haserretu du...*

(5a) eta (5b)n aditzek erakusten duten laguntzaile aldaketa (balentzia aldaketa) *inkoatibo / kausatibo (arazle)* bereizketaren bidez azaltzen da gaur gramatiketan, EGLU-IIIn jaso bezala. Berez gertatzen den zerbait / kausa baten eraginez gertatzen den zerbait adierazten du laguntzaile aldaketak. Eta, esan beharrik ez dago, (5a) saileko aditzek argumentu bakarra dute, ‘jasailea’ edo ‘pazientea’; (5b)koek, aldiz, ‘kausa’ eta ‘jasailea’. Aditzen sailkapenari dagokionez, kontuak horrela esplikatu behar dira.⁸

Argumentu-egiturak eta paper tematikoek, gainera, morfologia lexikoari ere eragiten diote. Eratorpen atzizki baten oinarrian aditz kategoriako lexe-

⁸ Darrigolek (1827: 147-149) sintaxian *dependenzia* harremanak aztertzean izan zuen argumentu egituraren nolabaiteko intuizioa, nahiz berarentzat gaur adizki laguntzaile esaten dioguna bakarrik izan aditza (eta gaur aditz nagusi deitzen dioguna, atributua, ‘apelatiboa’... izan daitekeen): *etxetik atera, etxera etorri*. Zer aditzek eskatzen duen datiboa, edo destinatiboa... “La syntaxe de régime dont nous venons de donner le précis, se confond évidemment avec l’usage bien entendu de la déclinaison” dio (149); gaurko terminologian, argumentuak kasu eta postposizio sintagmen bidez islatzen direla esaten dugu.

ma badago (-garri, -kor, -le, -tzaile, -gailu, -kin, -ki edo -kari atzizkien kasuan, esaterako), nahitaezkoa da aditz horren argumentu-egituraren eta eratorpen atzizkiaren arteko lotura aztertzea. Orain arte esaten genuen aditzoin hori *da* edo *du* motakoa zela; baina, horretaz gain, kontuan izan behar da *du* motako aditz horrek bi argumentu dituen, ala argumentu bakarra, eta argumentu bakar hori ‘agentea’ ala ‘gaia’ edo ‘jasailea’ den. Orobat, aztertu behar da eratorpen atzizkiak argumentu horietatik zein xurgatzen duen, zein hartzen duen bere gain. (6a)ko izenek ‘kausa’-‘gaia’ argumentu-egiturako *garbitu*, *berotu*, *estali*, *leundu* edo *luzatu* dituzte oinarri. Eta bi argumentu horietatik ‘kausa’ xurgatzen dute -garri, -gailu, -ki atzizkiek. (6b)koetan, ostera, oinarrian bi argumentuko aditza egon arren, ‘gaia’ argumentua xurgatzen dute -ki, -kizun, -(k)ari edo -kin atzizkiek (nahikoa da *Euskaltzaindiaren Hiztegiko* definizioak irakurtzea horretaz ohartzeko).

(6a) *garbigarri*, *berogarri*, *luzagarri*, *leungarri*; *garbigailu*, *berogailu*; *beroki*, *estalki*

(6b) *jaki*; *ikusbizun*, *asmakizun*; *eskari*; *gordekin*

Ezinbestekoa da, orobat, argumentuak eta paper tematikoak kontuan hartzea -le / -tzaile atzizkiak ondo deskribatu nahi baditugu. Azkueren garraitik *sufijo agente* esan zaio, ‘agentea’ adierazten duen atzizkia, alegia. Eta hala da atzizki horren bidez sortzen diren izen gehien-gehienetan; oinarrian aditz trantsitibo bat dago, bi argumentu dituen, nork ‘agentea’ eta zer ‘gaia’. ‘Agentea’ xurgatzen du gehienetan -le / -tzaile atzizkiak. Baina *eskiatu*, *du* laguntzailea hartu arren, argumentu bakarreko aditza da, ‘agentea’. Aldiz, *jasan* aditzak bi argumentu izan arren, ‘esperimentatzailea’ adierazten du ergatiboa hartzen duen argumentuak, eta ez ‘agentea’. Hala ere, euskaraz zuzenak dira bai *eskiatzaile* eta bai *jasaile* ere.

Beraz, ezin da esan -le / -tzaile atzizki agentiboa bakarrik denik. Esan beharko da atzizki horrek oinarrian eskatzen duela edo ‘agente’ argumentua duen aditza –trantsitiboa edo intrantsitibo ergatiboduna izan daitekeena–, edo aditz psikologiko trantsitiboa, ‘esperimentatzailea’-‘gaia’ argumentu-egitura izango duena, eta atzizkiak ‘esperimentatzailea’ xurgatzen duela.

Deskribapen honek balio digu azaltzeko zergatik ezin den sortu **iraule*: *iraun* ere bada, *eskiatu* bezala, intrantsitibo ergatiboduna. Argumentu baka-

rra du, ergatiboko sintagmaren bidez adierazten dena. Baina argumentu horri dagokion paper tematikoa ez da ‘agentea’, ‘gaia’ baizik. *Urak irakin du* esaten dugu, baina *urak* ergatiboko sintagmaren paper tematikoa ez da ‘agentea’, ‘gaia’ baizik. Horregatik ez da zuzena **irakitzaile*.

Hemen horretan luzatzerik ez dudan arren, ‘inkoatibo’ / ‘kausatibo edo arazle’ oposizioaren bidez azaldu beharko dugu *-kor* eta *-garri* atzizkiekin sor ditzakegun bikote asko eta asko: *haserrekor* / *haserregarri*, *izukor* / *izugarri*, edo *pozkor* / *pozgarri*; *-kor* atzizkiaren bidez sorturiko adjektiboak aditz inkoatiboa (argumentu bakarrekoa) du oinarrian; eta argumentu hori, ‘jasailea’ xurgatzen du atzizkiak; *-garrik*, ostera, ‘kausa’ xurgatzen du ‘kausa’-‘jasailea’ egiturako aditzean. Halaber, argumentu-egiturak eta paper tematikoek laguntzen dute Azkuek *-garri* atzizkian bereizi zituen balio aktiboa eta balio pasiboaren zergatia azaltzen: aditz kausatiboa hartzen duen *-garrik* ‘kausa’ xurgatzen du (balio aktiboa) *-beldurgarri*, *izugarri*, *pozgarri*, *amorrargarri*, *penagarri*...; aditz trantsitiboa, dela ‘agente’-‘gaia’ (*egin*, *eraiki*, *irakurri*...) dela ‘esperimentatzaile’-‘gaia’ (*ikusi*, *ulertu*...) oinarri duen *-garri* adjektiboan, ‘gaia’ xurgatzen du atzizkiak (hortik dator ‘balio pasiboa’).

Hitz batean, inguruko gramatiken parean egon nahi badugu, ezinezkoa da euskal eratorpen morfologiaren berri ematea argumentu-egitura eta paper tematikoak alde batera uzten baditugu.

6. Hitz ordena: informazio egitura

Perpausak izan ohi dira gramatiken aztergai, eta perpausak osatzen dituzten elementuak. Baina perpausako osagaiak nola antolatzen diren azaldu nahi bada, funtzio sintaktikoez bestelako kategoriak beharko ditugu. Hitz ordenaren azterketak izan du bere lekua euskal gramatika batzuetan; horregatik aukeratu dut, gai honek ere argi uzten duelako artikulua honetan behin eta berriro esana: garaian garaiko marko teorikoen araberako azalpenak ematen dituztela gramatikariek. Hiru gramatika lan aipatuko ditut: Astarloarena (1803), Darrigolena (1827) eta EGLU-I Eranskinetako (1987a) gehi *Euskararen Gramatika* honetakoa.

Astarloak (1803: 171-180) hitz ordenaz esan duena, osagaiak antolatze-ko eman dituen erregelak bere testuinguruan kokatu behar ditugu eta gogoan izan lehen hizkuntzaren ezaugarriak eman nahi zituela eta ezaugarri horiek guztiak betetzen zituen hizkuntza bakarra euskara zela demonstratu nahi zuela. Beraz, hizkuntzen jatorrizko ordena, aldaketarik izan ez duena, euskararena da. Horrek ez du esan nahi hitz ordenaren funtsezko kontuak ondo deskribatzeko gai izan ez zenik. Hiru arau eman zituen:

- a) Lehen araua: *ordena naturala*. Osagaiak, bakoitzak berezkoa duen ordenaren arabera kokatzen ditugu: substantiboa, garrantzitsuena denez, adjektiboaren aurretik, eta ondoren artikulua, eta ondoren postposizioak. Deskribapen horrek balio du gaur ere euskararentzat, nahiz ez erabili *ordena natural* terminoa: sintaxiak berak badu sintagma antolatze-ko modu bat hurrenkera finko bat dakarrena (baina gaur sintagma mota bakoitzak buru bat duela esaten dugu; beraz, PostS, DS, AdjS... ditugula eta, euskara buruz azken motako hizkuntza denez, artikulua, kasu-markak eta postposizioak eskuinean ematen ditugula).
- b) Bigarren araua: *ministerioaren arabera ordena* "orden ministerial"; hau da, funtzio sintaktikoen arabera. Agente funtzioa duen osagaia garrantzitsuagoa da 'paziente' funtzioa duena baino (1803: 175); beraz, lehenago ematen da: *Semiac maitatuten dau aita* (nahiz berez *aita* gorago egon ordena naturalean *sema* baino). *Orden ministerial* horretan zortzi funtzio bereizten ditu: lau lehen mailako eta lau bigarren mailako. Lehen mailakoak: agentea, pazientea, hartzailea eta jabea (jabeak beste edozeinen aurretik joan behar du). Gaurko ergatiboa, absolutiboa, datiboa eta genitiboa; *Euskararen Gramatikan* egiturazko kasuei dagozkienak, alegia. Bete-beteko parekotasuna dago, terminologia gorabehera, bakoitzaren deskribapenean hor. Eta lau bigarren mailako, hau da, adjuntuak (gehienetan postposizio-sintagma): *eficiente*, *final*, *instrumental* eta *material*. Duten ministerio edo funtzioaren arabera, agenteak ematen ditugu hartzaileen aurretik eta, azkenik, pazienteak. Hau da, nor, nori, nork; gaur *ordena neutro* deitzen duguna, alegia (ergatiboa, zehar-objektua, eta absolutiboa). Baina gaur perpausetan bi egitura motaz hitz egiten dugu: sintaxi egituraz (eta hor kokatzen ditugu funtzio sintaktikoak) eta informazio

egitura (eta hor kokatzen ditugu sintagmen edo osagaien hurrenkerrari dagozkionak).

- c) Hirugarren araua: *mugikortasunaren araua*; hau da, galdegaia. Ministerioaren arabeko ordena hausten da, beste guztien gainetik zerbait azpimarratu nahi denean. Ez du adibiderik ematen, baina gizona agentea izan arren eta emakumea pazientea, *gizonak emakumea ikusi du* bezalako adibide batean, “será colocada con posterioridad a la voz *emacumia* muger, si ésta es el móvil primero de la oración”. Hau da, emakumea baldin bada azpimarratu nahi dena, *emakumea ikusi du gizonak* izango da baliatuko dugun hurrenkera. Hau da, beste bien gainetik garrantzia duena. Gaur esaten dugu elementu bat nabarmendu nahi denean hautsi egiten dela ordena neutroa, eta *galdegai* esaten diogu nabarmendu nahi dugun elementu horri.

Jatorrizko hizkuntzaren ordena erregela horien arabekoa baldin bazen, euskarak erregela guztiak betetzen ditu. Beste hizkuntza batzuk aldatu egin dira erregela horietatik. Hori da Astarloaren ondorioa, betiere bere gogoeta non kokatzen zen kontuan hartuta ulertu behar dena.

Askoz zuhurrago jokatu zuen Darrigolek (1827) handik urte gutxira. Diskurtsoko osagaiak aztertzea, zer forma hartzen duten eztabaidatzea ez da nahikoa: “il nous reste à connaître la manière dont ces objets se lient ensemble, et la place qu’ils doivent occuper respectivement, pour être la représentation sensible de nos idées” (1827: 142). Bi baliabide mota nagusi bereizten ditu Darrigolek, Beauzéeri jarraikiz: hitzen hurrenkera eta hitzen *formes accidentelles*. Hau da, hurrenkera finkoa duten hizkuntzak, eta osagaiak perpausean lekuz alda ditzaketenak. Hizkuntza motarekin lotzen du baliabideetako bakoitza: deklinabiderik ez duten hizkuntzen baliabidea da lehena (hurrenkera finkoa); deklinabidedun hizkuntzek askatasun handiagoa dute osagaiak lekuz aldatzeko. Deklinabiderik gabeko hizkuntzetan, osagaien perpausean duten lekuaren bidez adierazten dira harremanak; eta hurrenkera aldatzeak, elementuen arteko erlazioa aldatzea dakar, eta, horrenbestez, esaten dugun horren esanahia ere aldatu egiten da. Latinez, edo euskaraz, berriz, hitzen ordena aldatzeak ez dakar osagaien arteko harremana aldatzea (*aitac maite du semea, semea maite du aitac*). Baliabide horiek

kontuan izanik, bi multzo handi bereizi zituzten hizkuntzen artean: *des langues analogues* (ordena finkoa dutenak), *des langues transpositives* (ordena aldakorra dutenak), nahiz terminologia hori guztiek ez onartu (1827: 150). Areago, Darrigol (1827: 143) ohartu zen sintaxiaz bestelakoa zela aztertzen ari zen puntua: “Cet arrangement, que l’on appelle construction, est moins une affaire de syntaxe, qu’une affaire de goût: il appartient moins à la grammaire, qu’à la rhétorique”. Eta, azkenik, argi uzten du, dela hurrenkera finkoa, dela hurrenkera aldakorra, ez duela uste baliabide bat bestea baino jatorragoa denik. Horretan ere intuizio handikoa ageri zaigu Darrigol.

Albo batera utziko dut Altubereren hitz ordenari buruzko dotrina eta zuzenean helduko diet *Euskararen Gramatikan* ematen ditugun azalpenei. Hitz ordena gaur informazio egiturari lotzen zaio. Hizkuntzak komunikatzeko diren neurrian, esaten dugun horrek badu sintaxi-egitura, perpausaz osatua dagoena, eta perpaus horien bidez informazio jakin bat ematen dugu. Bi azal bezala dira, bata bestearen gainean jarriak, eginkizun diferenteak dituztenak.

Informazio egiturari erreparatzen badiogu, ohikoa dugu azken urteetan *ordena neutroaz* hitz egitea; ordena neutro hori hausten denean *ordena markatua* dugu. Ordena markatuak *galdegaia* eta *mintzagaia* bereiztea eskatzen du... Ez dakit zenbateraino gauden ohituak mintzagaiaren barruan *mintzagai aurreratua*, *mintzagai atzeratua*, periferia gunean, baina eskuineko gunean ematen dena, edo *erdiko mintzagaia* bereizten. Eta kontzeptu horiek guztiak ageri dira hemen aurkeztu zaizkigun Akademien gramatikan. Edo gure artean behin baino gehiagotan aipatu izan dena: zer gertatzen da galdegaia-ekin ezezo perpausetan? Mitxelenak (1981)⁹ esan zuen oso gai konplikatu zela, ez zuela modurik ikusten argibideren bat emateko. Baina gaur egun *foco de la negación*, *foco de la información* terminoak erabili dituzte beste hizkuntza batzuetan. Beraz, ezezo perpausetan ere, inguruko hizkuntzetara

⁹ Mitxelena, Koldo (1981). “Galdegaia eta mintzagaia euskaraz”, in Antonio Tovar *et al.* (ed.), *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak* (57-81). Bilbo: Deustuko Unibertsitatea. [Berrargitalpenak MEIG VI (137-167); SHLV II (656-673); OC VII: *Fonética y fonología. Morfosintaxis. Dialectología* (335-361)].

begiraturuz gero, aurkituko dugu modua galdegaiaren eta ezeztapenaren fokuari artean bereizteko.

Ordena neutroan, *gurasoek haurrei egia esan behar diete* da informazioa emateko, zerbait esateko modua neutroa euskara estandarrean. Egia da ñabardura asko egin behar direla ahoz ari garen, idatziz jardunda ere zer testu mota den... Baina, oro har, hori da estandar neutroan onartuko duguna. Horrekin batera, ordea, azken hogeitaz urte hauetan, *zer* adierazten duen osagaia luze samarra bada, eta, batez ere, perpaus osagarria bada, aditzaren eskuinean ematea gomendatzen. Hau da, *irakurri dut gurasoek haurrei egia esatea komeni dela* ordena neutroa izan daiteke; hor ez dago bereziki nabarmentzen den osagairik, baina objektuaren pareko den konpletiboa aditzaren ondoren emana dago. Eta hori guztia, komeni da esatea. Gure ikasleek (eta ez haiek bakarrik) oso barneratua dute Altubereren ‘aditza azken’ erregela.¹⁰

Aldiz, ordena neutroa haustean, *galdegai-mintzagai* egitura izango dugu eta elementu bat nabarmenduko dugu; elementu hori, *galdegaia*, aditzaren aurrean ematen da eta Mitxelenak zioen bezala, unitate foniko bakarrean esan behar da. Gero besterik da kontakizuna den, ahozko testua den, intonazioarekin zenbat gauza egin ditzakegun... Mintzagaiari dagokionez, galdegaiaren ezkerrean kokatzen duguna (ezkerreko periferia gunean, alegia) *mintzagai aurreratu* edo *hanpatutzat* hartuko dugu: *denda horretan, beti izaten dituzte produktu on eta prezio onekoak*. *Beti galdegaiaren ondoan, produktu on eta prezio onekoak* mintzagaia da; eta *denda horretan* mintzagai aurreratua. Orain badakigu *mintzagai atzeratua* ere badela: *ederra egin digu, zure lagun zerri horrek!* adibidean, *zure lagun zerri horrek* gehitu dugun zerbait da; ez da galdegaia, mintzagai atzeratua baizik.

Ezezko perpausetan zer gertatzen da? EGLU-I Eranskina (1987a) argitaratu genuenetik, Juan Garziaren (2014) *Esaldiaren antolaera*¹¹ edo RAEren *Nueva Gramática de la Lengua Española* lanei esker, argitu ahal izan ditugu zenbait kontu. *Galdegai, mintzagai, ordena neutro / markatu*, perpausaren in-

¹⁰ Merezi du Ibon Sarasolaren *Bitakora kaiera* irakurtzea Altubereren eragin kaltegarriaz ohartzeko: Sarasola, Ibon (2016). *Bitakora kaiera*. Donostia: Erein.

¹¹ Garzia, Juan (2014) *Esaldiaren antolaera*. *Funtzio informatiboak gako*. Bilbo: UPV/EHU.

formazio-egiturari dagozkion kontzeptuak badira, eta ez sintaxi-egiturari, lehen galderak izan behar du nahitaez: zer informazio ematen du baiezko perpaus batek, eta zer informazio ematen du ezezko perpaus batek? Baiezko perpausentz ordena neutroa baliatzen dugunean, ematen dugun informazioa berria izango da, ez dugu elementuren bat bereziki nabarmendu. Eta osagai bat bereziki markatu nahi dugunean, kontraste bat dagoelako edo, ordena markatua baliatuko dugu. Baina, zer egiten dute ezezko perpausak? Ezezko perpausak, gehienetan, ez diote galdera bati erantzuten. Baieztapen bat antolatzean, kontuan hartzen dugu zer elementu den ezezaguna, zer informazioaren bila gabiltzan, eta informazio hori ematen duen elementua jartzen dugu aditzaren aurrean. Ezezko perpausak horrela antolatzen ditugu? Gehienak, behintzat, ez. Ezezko perpaus gehienetan lehendik dugun informazioa, edo informazio horren zati bat ukatu egiten dugu. Baieztapen baten aurrean, “hori ez, beste hau baizik” esaten dugu. Edo, besterik gabe, “hori ez”, implizitu utzirik zer bai.

Baina ezezko perpausetan ere egin daitezke galderak, aditzaren aurrean kokatzen ditugunak, baiezko perpausetan bezalaxe: *zergatik ez zara garaiz iritsi? Autobus greba dagoelako; horregatik ez naiz garaiz iritsi.* Idazten dugunean ezin dugu bereziki nabarmendu; hitz egiten dugunean oso nabarmena da zer azpimarratzen dugun. Baina, gehienetan ez dugu horrelakorik egiten, aurretik daukagun informazioa, edo horren zati bat ukatzen dugu. Esate baterako, *ez dira oinez etorri.* Horrek esan nahi du norbaitek esan duela *oinex etorri dira.* Eta baieztapen horretan ematen den informazioa, *oinex etorri* izana, ukatu egiten dugu. Gero gehitu dezakegu (*ez dira oinez etorri*) *trenex baizik.* Adibide horretan zein da ‘ukagai’ deitzen dugun elementuaren fokua? *Oinez.* Eta, kasu honetan, kontraste gisa, erabil dezakegu *trenex.* Horrek ez du esan nahi *etorri* ekintza ukatzen denik; *trenex etorri* izana ukatzen da. Horrelako adibideetatik sortu zen ideia ezezkoetan ere adizki laguntzailearen aurrean kokatzen dugula galdegaia. Baina ez da hala; normalean, perpausak laburrak badira, adizki laguntzailearen aurrean kokatzen duguna *ukagaia* da. Aldez aurretik daukagun informazio horretan egia ez dela dakiguna.

Euskararen baliabideen berri ematea dagokigu guri. Baina gaur onartzen da hizkuntza bakoitzak dituela bere baliabideak informazioa kudeatzeko, eta, hor, gutxienez ingelesez, eta beste hizkuntza batzuetan, aipatzen dira

topic fronting, *left dislocation* eta *cleft sentences*, eta antzeko terminoak. Ondo ulertzen ez badugu horiek zer diren, euskaraz ere nekez egingo dugu deskribapen onik, beste hizkuntza batzuekin konparazioak egiteko balioko digunik. Beraz, horrek guztiak eskatzen du terminologia egokitzea eta jakitea guztiok kontzeptu berak erabiltzen ari garela, eta modu bertsuan ulertzen ditugula kontzeptu horiek.

7. Erreferentzia adjektiboak

Pello Salaburuk nabarmendu du bere hitzaldian norbaitek hartu nahi baditu, badirela araugai izan daitezkeen puntuak *Euskararen Gramatikan*. Horietako bat, adjektibo erreferentzialesi dagokie. Bereziki aukeratu dut, gainera, puntu hau, Ignacio Bosque eta Carme Picallok (1996)¹² ezarri zutelako adjektibo erreferentzial sailkatzaile / adjektibo erreferentzial tematiko bereizketa.

Gaur egun gramatika guztiak egiten dute adjektibo kalifikatzaile / adjektibo erreferentzial bereizketa. Euskaltzaindiak ere aipatu du azken adjektibo mota hau 25. arauan: “[hitz-elkarketak] Aukera paregabea eskaintzen du, orobat, erdal “izen + adjektibo erreferentzial” egiturak ordezkatzeko: *esku-lan* (*trabajo manual / travail manuel*), *aho-literatura* (*literatura oral / littérature orale*), *ekonomi teoria* (*teoría económica / théorie économique*), etab. Bide honi eutsi behar litzaioke orain ere, ahal den guztian, erdal hitz-moldaera arrotzen menpekoe-gi bizi nahi ez badugu”. Horretaz asko ikertu eta argitaratu da beste hizkuntza batzuetan. Gure artean, besteak beste, hor daude Igone Zabalaren (1997)¹³ eta Xabier Artiagoitiaren (2002)¹⁴ lanak. Bere garaian Euskaltzaindiak esanak osatzeko zer behar da? Gaur egun adjektibo erreferentzialen (edo erreferen-

¹² Bosque, Ignacio and Picallo, Carme (1996). “Postnominal Adjectives in Spanish DPs”, *Journal of Linguistics* 32, 2: 349-385.

¹³ Zabala, Igone (1997). “Argumentu-harremana / eremu-harremana: izenondo erreferentzialen euskal ordainen bila”, in *Nazioarteko Terminologia Biltzarreko Aktak*. Donostia: UZEI-IVAP, 535-565.

¹⁴ Artiagoitia, Xabier (2002) “-(t)ar atzizkidun hitzen jokabide sintaktikoaren inguruan”, *FLV* 91: 443-462.

tzia-adjektiboen, forma hori eskatuko lukeelako Euskaltzaindiak 25. arauan emandako gomendioak) artean bi motatakoak bereizten dira: erreferentzia-adjektibo sailkatzaileak / tematikoak. Hau da, adjektiboaren eta izenaren artean egon daiteke ‘sailkatze’ erlazioa, edo egon daiteke ‘osagarri-buru’ erlazioa, argumentudun izenetan gertatzen den bezala. Sailkatze erlazioa dago (7a)ko izenen, edo izen eta erreferentzia adjektiboaren artean, bai eta (7b)ko izen eta erreferentzia adjektiboen artean ere: literatura norentzat den, lana zein baliabidez egin den, edo teoria zer motatakoa den.

(7a) *haur literatura, esku lan; teoria ekonomiko*

(7b) *literatura infantil; trabajo manual; teoría económica*

Erreferentzia adjektibo horiek guztiak sailkatzaileak izango lirateke; modifikatzaile-buru harremana dago bi osagaien artean. Baina (8a) eta (8b)n osagarri-buru harremana dago bi osagaien artean: *zehula* eta *elektroi* barne-argumentuak, ‘gaia’; *birus* ‘agentea’, infekzioa zerk sortu duen adierazten duena. Eta *garraio*, *infekzio* eta *zatiketa*, berriz, ‘gertaera’ izenak, argumentu-egitura dutenak.

(8a) *elektroi-garraio, birus infekzio, zehula-zatiketa*

(8b) *transporte electrónico, infección vírica, partición celular*

Euskaraz badugu erreferentzia-adjektiboak sortzeko atzizki bat: *-(t)ar*. Bere garaian LEF batzordeak (Lexiko Erizpideak Finkatzeko batzordeak, garai hartan arautu gabe baitzegoen *irizpide*) atzizki hori aztertu zuenean eztabaida zen *-(t)ar* atzizkiak sortutako adjektiboa izen bizidunen nahiz bizigabeen ondoan eman zitekeen. Argi geratu zen baietz, eta horrek indar hartu du eta gaur egun baditugu *txori gautar*, *hegazti gautar*, *lehoi itsastar*... Horiek sailkatzaileak dira: ‘noiz’ edo ‘non’ erlazioa adierazten du adjektiboak. Baina, zer gertatzen da erreferentzia-adjektiboa tematikoa denean? Izan al dezake ‘osagarri-buru’ harremana *-(t)ar* adjektiboak ondoan duen izenarekin? Esan al daiteke *newtondar legeak*, *zatiketa zehular* edo *aldaketa molekular*? Igone Zabalak (2013) argi eta garbi gaitzetsi du bide hori; izen elkartu sintetikoen bidez eman behar genuke euskaraz bi izenen arteko ‘osagarri-buru’ harremana, eta ez ‘izena + erreferentzia-adjektibo’ egituraren bidez. Baina baditugu horrelako adibideak gure corpusetan. Gaitzetsi egin

behar ote ditu Euskaltzaindiak, eta mota horietakoei bidea itxi? Izan ere, euskaraz argumentua adierazteko edo genitiboa erabili dugu (*zelulen zatiketa*) edo izen elkartu sintetikoa (*zelula-zatiketa*). Beraz, *Newtonen legeak* bai, *zelulen / zelula zatiketa* bai, *molekulen / molekula aldaketa* bai, baina *newtondar legeak*, *zatiketa zelularra* edo *aldaketa molekularra* bai ala ez?

Amaitzeko, XXI. mendeko gramatikek hizkuntzalaritzan nahikoa hedatuak dauden termino, kontzeptu eta sailkapenak bereganatu behar dituzte. Eta gaurko gramatikek zertaz hitz egiten dute? Zer kontzeptu erabiltzen dituzte? Argumentuez hitz egiten dute, sare tematikoez, aditz psikologikoez, buru funtzionalez, informazio egituraz... Eta euskara, laurehun bat urtean gehiegi aldatu ez den hizkuntza hori deskribatzeko, eta bariazioaren eta normaren edo gomendioaren artean aukerak egiteko, gauzak termino hauetan kontatu behar dira.

Erreferentzia bibliografikoak

ASTARLOA, Pedro Pablo (1803). *Apología de la lengua bascongada ó Ensayo crítico filosófico de su perfección y antigüedad sobre todas las que se conocen*. Madrid: Geronimo Ortega, <http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/24887>.

AZKUE, Resurrección María (1923-25). *Morfología vasca* [Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1969].

DARRIGOL, Jen Pierre (1827). *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque, par un ecclésiastique du diocèse de Bayonne*. Baiona: Duhart-Fauvet. [Berrargitalpena-faksimilea, Toulouse: Eché, 1979], <http://oaiprodl.gipuzkoa.eus:8080/handle/10690/103449?locale=fr>.

GOENAGA, Patxi (1980). *Gramatika bideetan*. Donostia: Erein.

GÓMEZ, Ricardo (1991). «Larramendiren gramatika eta gramatikagintzaren historia», ASJU XXV-3: 783-796.

——— (2006). *XIX. mendeko euskal gramatikagintzari buruzko ikerketak*. Dokto-rego testia, UPV/EHU, <https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/13405/G%203%b3mez%202007-TESIA-Argitalpena.pdf?sequence=1&isAllowed=y>.

——— (2008). «Euskal gramatikagintza zaharraren historia laburra: XVII – XVIII. mendeak», *ASJU Geh.* 51: 329-349.

GRAMATIKA BATZORDEA. Euskaltzaindia (1985, 1991). *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak* [EGLU-I]. Bilbo: Euskaltzaindia.

——— (1987a). *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak* [EGLU-I, *Eraskina*]. Bilbo: Euskaltzaindia.

——— (1987b). *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak* [EGLU-II]. Bilbo: Euskaltzaindia.

LAFITTE, Pierre (1944). *Grammaire Basque (navarro-labourdin littéraire)*. [Donostia: Elkar, 1979].

OYHARÇABAL, Beñat (1989). «Les travaux de grammaire basque avant Larramendi», *ASJU XXIII-1*: 59-73.

——— (1993). «Les premières analyses des particularités morphosyntaxiques du basque au 17^{ème} siècle», *ASJU XXVII-1*: 265-284.

——— (1998). «A. Abbadieren euskal gramatikari buruzko ideiak eta ordu arteko gramatikagintza», *Antoine d'Abbadie 1897-1997. Congrès International*. (Hendaye, 1997). Donostia: Eusko Ikaskuntza; Bilbo: Euskaltzaindia, 431-451.

VAN EYS, Willem J. (1879). *Grammaire comparée des dialectes basques*. Paris, London, Amsterdam, <http://www.liburuklik.euskadi.eus/jsui/handle/10771/24678>.

ZABALA, Igone (2013). «Zentral nuklearretatik komunitate mikrobiarretara», *31 Eskutik*, <http://31eskutik.eizie.eus/2013/06/01/zentral-nuklearretatik-komunitate-mikrobiarretara/>.